

NORBEREGANAKO KONFIANTZA

EMOZIOAK LANTZEN

Norberak duen balioaren eta gaitasunaren sentimendua. Hau da, norbera ari den horretan sinestea, alde sendoak eta ahulak jakinda; baina beti ere, arreta handiena eskainiz norberak duen gaitasunari.

Aukeratu zein egoerataz senti dezakegun hori, hiru erantzun dira egokiak:

Maite gaituztenontzat garrantzitsuak garela sentitzean.

Sufritzen ari den pertsona kontsolatzen dugunean.

Besteen ikuspuntua ulertzen dugunean.

Egin dugun hutsegite edo okerrari
aurre egiteko gauza garenean.

Ondokoen balorazio positiboak entzutean.

Norbaitek egindako oparia jasotzen dugunean.

OROIMENA GALDU ZUEN PRINTZEA

Gau batez, printzea lotan zegoela, kolpetik esnatu zen baten batek zera xuxurlatu zionean: "Printze gazte hori, esna zaitez eta gogora ezazu nor zaren eta zertara etorria zaren".

Begiak ireki eta hegan zihoan hegazia ikusi zuenean gogoratu zuen perla zoragarria berreskuratzeke etorria zela.

Printze gazteak ez zekien perla babesten zuen sugetzarrari aurre egiteko nahikoa adore izango zuen, baina erregearen semea zela gogoratu zuenean indartsu sentitu zen. Sugea bizi zen kobazulorantz abiatu zen eta erreinuan ikasitako sorginkeria eta soinuen bidez sugetzarra lokartu eta perla zoragarria eskuratu zuen.

Ordura arte erabilitako arropak erantzi eta printzearenak jantzi nahi izan zituen, baina denbora hartan asko hazi zenez ezin izan zuen.

Oso pozik abiatu zen herrialdera agindutakoa bete zuelako.

Iritsi zenean harrera beroa egin zioten. Bere mailari eta neurriari zegozkion jantziak eskaini zizkieten, bistakoa baitzen herrialde urrun hartan izan zen denboran hazi egin zela.

Gortean perla zoragarria berreskuratu eta proba gainditu zuelako zoriondu zuten. Gainera, bueltan etorri zitzaien printzea ezberdina zela konturatu ziren, bai kanpotik bai barrutik aldatu baitzen.

Eta kontatzen dutenez, errege izan zenean zintzotasunez eta jakinduriaz jokatu zuen.

Erantzun ondorengo galderak:

- *Erregeak semeari proba bat ezarri zion. Zuk zer egingo zenuke perla eskuratzea eskatuko balizute?*
- *Inoiz ezer ahaztu al zaizu/duzu edo oroimen onekoa zara?*
- *Zer egin zuen printzeak oroimena berreskuratu zuenean?*
- *Sugetzarrari aurre egin zionean bere adorea zalantzan jarri zuen benetan nor zen jabetu zen arte. Inoiz gertatu al zaizu horrelakorik?*
- *Kezkatzen zintuen arazoren bati irtenbidea eman ondoren nola sentitu zara?*
- *Zer egingo zenuke printzeari nor zen eta zer egin behar zuen gogorarazteko?*